


BIDE BERDEAK ETA BIDEGORRIAK SEINALEZTATZEA ETA EGOKITZEA

Mugikortasuneko eta Garraio Publikoko Zuzendaritza



ZERGATIK?



Bide berdeak tresna aproposak dira motorizatu gabeko mugikortasunaren aldeko herritarren pentsamoldea aldatzeko eta haien bizi kalitatea hobetzeko.

Mugikortasun jasangarria, naturarekiko errespetua, eta aire zabaleko jarduera osasungarriak sustatzen dituzte, irisgarritasunari lotutako baldintza onenak eskainita, eta, halaber, erabiltzaile mota guztiek, mugikortasun urriko pertsonen barne, erabiltzeko modukoak dira.

ZEIN?

Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuak, oinezko eta bizikletentzako bide berdeak dituzten lurraldeko herri txikien, landa herrien edo irisgarritasun gutxiko herrietako udalekin lankidetzan, eta mugikortasun jasangarria sustatzen duten pertsonen eta kolektiboen laguntzarekin.



ZERTARAKO?



Mugikortasun eta lurralde jasangarriak sustatzea, dimentsio guztietan.

Ingurumenaren eta klima aldaketaren aurkako borrokaren arloko helburuak betetzeko.

NOLA?

Proiektu pilotu bat garatuko da, oinezko eta bizikletentzako bide berde gisa erabiltzen diren bide-zati batzuk aztertu, garatu, seinaleztatu eta egokitzeko, lurraldeko herri txikien, landa herrien edo irisgarritasun gutxiko herrien arteko komunikazioa hobetzen baitute. Halaber, dibulgazio kanpainak eta hitzaldiak egingo dira, eta liburuxkak eta mapak editatuko dira.




NON?

Oinezko eta bizikletentzako bide berdeak dituzten udalerriak, beraien ezaugarriak kontuan hartuta, egokiak direnean aurreikusitako proiektu pilotua abian jartzeko, adibidez Leintz Gatzaga eta Antzuola.

NOIZ?

2020ko ekitaldia.



200.000€